

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2013-KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Joan den uztailaren 28an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen Arabako Foru Aldundiaren (AFA), bere foru erakunde autonomoen (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eta Gaztediaren Foru Erakundea) eta bere 9 sozietate publikoen Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiari dagokiona.

Txostenak adierazi du bai Aldundiak, bai erakunde autonomoek, bai sozietate publikoek **zuzentasunez bete dutela** ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz ez-betetzeak azaleratu diren Aldundian, 2 erakunde autonomoetan eta 6 sozietate publikotan.

**Aldundiak** luzatutako aurrekontuko ordainketa kredituak 3,2 milioi euroan gehitu zituen, **aurrekontua luzatzeko** araubidea urratuz. Berebat, **administrazioko kontratazioari** dagokionez, Epaitegiak lege-hausteak izan direla azaleratu du 4 kontratutan (3 kontratu indarraldia amaitu ostean luzatu dira eta kontratu 1 publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu da, prozedura irekia baliatu beharrean) eta 2 zerbitzuren kontratazioan (inongo espedienterik bideratu gabe zuzenean egindakoa).

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak** 2 kontratu luzatu zituen aukera hau pleguetan jaso gabe zegoela eta **Gaztediaren Foru Erakundeak** 2 hornidura eta 4 zerbitzu kontratatu zituen kontratu txikien moldea baliatuta.

**Foru Sozietate Publikoei** dagokienez, hainbat ez-betetze azaleratu dira Langileriaren eta Kontratazioaren alorretan. Honela, bada, sozietateak langile bat kontratatu zuen izaera mugagabearekin, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatu gabe. Horietatik 2k, gainera, izaera finkoa zuten eta horrek 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea urratzen du. Administrazioko kontratazioa aztertzean akatsak azaleratu dira Araba Garapen Agentzia, SAK, Arabako Lanak, SAK eta Indesa 2010, SLk izapidetutako 3 espedientetan. Horrezaz gain, Araba Garapen Agentzia, SAK eta Indesa 2010, SLk hainbat kontratu txikiren bitartez hornidura eta zerbitzuak kontratatu zituzten (1 eta 5, hurrenez hurren).

**Urteko kontuei** dagokienez, HKEEK aldeko iritzia plazaratu du kasu guztietan; salbuespen dira AFaren Kontu Orokorrean kontularitzako hainbat doiketa, Diruzaintza Geldikina 72,4 milioi euroan murriztuko luketenak.

**Finantza egoerari** dagokionez, Epaitegiak ondorioztatu du ez dela hobetu 2012arekiko. Zorpetzeak, aurreko ekitaldietako joerari jarraiki, gora egin du; baita gastu arruntek ere (langile eta finantza gastuak).

Txostenak ondorioztatu du AFAk **ez duela** 2013an **aurrekontuaren egonkortasun helburua bete**, finantzatu gabeko 27,5 milioi euro izanik. Ordea, **bete du gastuaren araua**.